



Arartekoaren 2015S-561-15 Ebazpena, 2015eko urriaren 29koa. Horren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailari iradokitzen zaio, familia-abegiko programan parte hartzen duten bikoteen bizikidetzan hausten den kasuetan, zehaztasunez ezar dezala hartutako adingabeekiko bisita, harreman edo komunikazio araubidea eta esku-hartze programetan familiak sinatu behar duten hitzarmenean beraien parte-hartzearekin lortu nahi diren helburu nagusiak sar ditzala.

Aurrekariak

1. (...) andereak erakunde honetara jo du Arartekoaren esku-hartzea eskatzeko, (...) eta (...) adingabeen familia-abegia amaitu izanagatik. 2014ko abenduan gertatu zen hura, haurrekin zenbait urtez bizi eta gero.

Erreklamaziogileak dioenez, familia-harrera 2013ko apirilean bikote abegigilea banandu ostean sortutako gatazkaren ondorio zeten da. Gizon abegigilea familiaren egoitzatik irten zen data harrezkerok, umeek erreklamaziogilearekin jarraitu zutena begia, eta gizon abegigilearekin ere harremana eta kontaktua izaten jarraitu zuten.

Dioenez, banantzeaz aila izan da eta une oro jakinarazi dizkio Gipuzkoako Foru Aldundikoa begiaren jarraipen zerbitzuari sortzen ziren zailtasunak. 2013ko abenduan, haurren foru zerbitzuak gizon abegigilearen eta umeen arteko komunikazio araubidea ezarri zuen foru agindu baten bidez. Hala ere, interesdunak dioenez, foru aldundiari adingabeak bikotean zegoen gatazkatik babesteko neurriak hartzeko eskatu behar izan zuen, liskarren lekukoak baitziren. Haren ustez, burutuz iren jarduketek ez zuten lagundu egoera birbideratzen; dioenez, adibidez, gizon abegigilearekin haren eta umeen arteko komunikazioa ezarri zuen ebazpenaren baldintzak argitzeko edo topaketak egiteko topagune edo antzeko zerbait jartzeko eskatu zuen baina ez zioten jaramonik egin eskaerari.

2014ko uztailleak abiarazi zen Trebatu familia esku-hartze programari dagokionez, dioenez, ez zen laguntza oso eraginkorra izan eta ez zitzaizkion argi azaldu lortu nahi ziren helburuak, eta ez zitzaizkion idatziz eman hainbatetan eskatu arren. Adierazi duenez, azkenean, familia-abegia amaitzeko erabakia oinarritu zen txostenaren bidez izan zuen helburuen berri, baina ez programan parte hartua urretik.

Familia-abegia etetearekin ados egonda, kexaren egileak gora jotzeko errekurtsio bat aurkeztu zuen baina foru aginduaren bidez ezetsi zuten 2015eko martxoan. Erreklamaziogileak dagokion epaitegian administrazioarekikoa auzi-errekurtsioa jarriko duela jakinarazi dio erakunde honi.





2. Kexa izapidetzera onartuta eta hura aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailera jo genuen kexaren egileak adierazi dizkigun puntuetako batzuei buruz galdetzeko. Garrantzitsua da argitzea, auziaren funtsa justizia auzitegietan aztertuko dela kontuan hartuta, abegia eteteko erabakia hartu aurretik haurren zerbitzuak izandako jardunbidearen alderdi batzuk (gizon abegigilearen eta umeen arteko kontaktuak arautuz ituen foru aginduaren baldintzak argitu ziren, interesdunari profesionalek abegiaren bilakaeraren inguruan egindako balorazioei buruz emandako argibideak, Trebatu programaren helburuei buruz emandako informazio idatzia) eta, orokorrean, haurren foru zerbitzuak familia-abegiko programetan parte hartzen duten bikoteetan geroago gertatutako banantze edo dibortzio kasuetan jokatzeko duen modua (hura arautzen duen protokolorik dagoen) ezagutu nahi izan ditugu.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiak Arartekoari bidalitako idazkiak haurren zerbitzuak egindako jarraipen txosten askoren laburpenak (2013ko uztailetik 2014ko abenduan abegia eten arte) jaso ditu, baina partzialki baino ez diete erantzun egindako galderei.

Esan digutenez, 2015eko bigarren seihilekorako, **abegi-familietan** edo haurren foru zerbitzuaren esku-hartzeei lotutako familietan **geroago gertatutako banantze edo dibortzio prozesuetarako** esku-hartze profesionala gidatzeko **prozedura** bat idaztea aurreikusita dago. Edonola ere, egun zerbitzu horrek bere jarduketetan irizpide nagusi bi darabiltza halako egoeren aurrean:

- *“Ahal den neurrian aurrea hartu adin txikikoak bere harrera familiako kideekin dituen lotura esanguratsu positiboen hausturari. Horrek esan nahi du ahaleginak egiten direla familia harrerari jarraipena emateko bikoteko kide bakarrarekin (adin txikikoaren beharrezko erantzuteko egoerarik hoberenean dagoenarekin), eta ahaleginak egiten direla bisita eta kontaktu erregimen bat finkatzeko harreragile izateari utziko dion pertsonari dagokionez.*
- *Harrera familiako kideen artean erabakiak adostasunez hartzea bultzatzea, adin txikikoaren ongizatean jarririk arreta gunea.”*

Foru Aldundiak ez du erantzun **erreklamaziogileak gizon abegigilearekin haren eta haurren arteko kontaktuak ezarri zituen foru aginduaren baldintzak argitzeko egin zuen eskaerari** erantzun zitzaien. Bikotearen ondoren ezarritako komunikazio araubideari dagokionez, txostenen laburpenetan irakur daitekeen bakarra da hura abegigile biek umeen zaintzari buruzko adostasuna lortzeko gertatzen ar iziren zailtasunak zirela-eta egindako eskaerari erantzunez hartu zela eta lehenago biek banakako bilerak egin zirela haien iritzia entzuteko. Besteak beste, jakinarazi denez, gizon abegigilea emakume abegigilearekin bizitzaren aldea gertu zen, eta esan zuenez, egunero joaten zen familiaren egoitzara umeak oheratzera emakumea begigilea ados ez bazegoen ere, eta ez zegoen prest horri uko egiteko.





Foru Aldundiak, bilera horien ondoren, haurrak emakumea begigilearekin bizitzeko erabakia hartu zuen eta, 2013ko irailaren 26ko ebazpenaren bidez, gizona begigilea astean behin gutxienez arratsalde oso batez *"ikastetxetik irteten direnetik lotarako ordura arte"* eta asteburuetan goiz eta arratsalde batez egon ahal izango zela ezarri zuen.

2014ko otsailean egindako txostenaren laburpenean irakur daitekeenez, umeak bikotearen gatazka pairatzen ari ziren eta abegigileekin arazo hori jorratzeko ahalegina egin zen egoera horretatik babestu ahal izateko, haurrengan ezinegonaren zantzuak atzematean. Halaber, irakurri dugunez, profesionalen ustez abegia arriskuan zegoen arrazoi horregatik eta aipatu da bisita araubidea ezarri zuen administrazio-ebazpena ez zen bete.

Foru Aldundiak ez du azaldu bere idazkian ez-betetze horren aurrean neurririk hartu zen.

Kexaren egileari profesionalen balorazioei buruz emandako informazioari eta familia-abegiak aurrera jarraitzea arriskuan zegoela jakinarazi zitzaion uneari dagokienez, 2014ko uztailleko gorabehera txostenean irakur daiteke hil horren 21ean bilera bat egin zela kexaren egilearekin. Biler horretan, kasuaren jarraipenaren arduradunek umeak zeuden egoeratik zuten kezka berri eman zioten eta esku-hartzeko errekurtsio bat aktibatu behar zela adierazi zioten, esku-hartzea egitean balorazio bat egiteko, jarraian emango ditugun gogoetetan azalduko diren helburuekin.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere idazkian, erreklamaziogileak 2014ko abuztuan Trebatu programan parte hartzeko sinatu zuen hitzarmena igorri digu, **interesdunari programaren ezaugarriei eta haren helburuei buruz eman zitzaion idatzizko informazioa** ezagutzeko agertu genuen interesari erantzunez.

Azaldutako egitateen aurrean eta eragindako administrazioak eta kexaren egileak emandako agiriak aztertuta, honako gogoetak egin behar ditugu:

Gogoetak

1. Ebazpen honen aurrekarietan adierazita geratu denez, erakunde honen jarduketaren xede nagusia kexaren egileak abegi emandako ume bien familia-abegia eteteari lotuta haurren zerbitzuak egindako esku-hartzearen alderdi batzuk aztertzea izan da. Arartekoak ez du iritzirik emango hartutako erabakiaren egokitasunari buruz eta ez du ebatziko umeen interes onenaren araberakoa den. Kontu horiek gure eskumena eta esku-hartzeko posibilitateak gainditzen ditu. Administrazioaren erabakiaren zati hori administrazioari baino ez dagokio; berak antolatzen ditu eginkizun horiek burutzeko behar beste ezagupen eta trebetasun dituzten profesional taldeak horretarako eta, bestalde, erabakiaren aurka errekurtsioa jarri da justizia auzitegien aurrean.





Kexaren egileak gai asko ekarri dizkigu gure gogoetak egin ditzagun baina, hala ere, kasu honetan aztertutakoaren arabera, haurren foru zerbitzuaren etorkizuneko jarduketetarako hobetu daitezkeen kontuei heldu nahi izan diegu gure jarduketan.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak familia-abegiaren jarraipenaren eta etetearen kariatara egindako txostenetatik ondorioztatzen denez, abegi-familiak konpromisoz erabili du bere erantzukizuna eta umeen bilakaera egokia ahalbidetu du. Umeok euren bizitzako lehen urteetan zaintza maila ona eman dieten pertsonak izan dituzte. Haurren jarraipenaren eta bilakaeraren ardura duten profesionalen iritziz, horri esker era egokian integratu dira egun bizi diren abegi-familia berrietan eta bilakaera ona izan dute.
3. Abegigileek haurrekin bizi izan diren urte guztietan egin duten lan ona eta haien artean sortu den lotura direla-eta, hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du abegia eten bikotea hautsi den unean; aitzitik, abegiak haietako batekin jarraitzea eta bestearekin komunikazio araubidea ezartzea hautatu du.

Gogoratu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak, legearen aginduz haur bien tutoretza bere gain daukan heinean, haien interes gorena zaintzeko jardun eta tutoretza horrek dakartzan erantzukizunak bete behar dituela. Alegia, haiek zaintzeko, haien ongizatea bermatzeko eta era egokian garatzeko bitarteko guztiak jartzeko erantzukizuna dauka.

Zio horregatik, kexaren egilearekin abegiari eusteko erabakia hartu ondoren, jarraipen hurbila egitea eta haren abegi-familiaren egoera berriaren aurrean umeen ongizatea bermatzeko behar diren laguntzak jartzea erabaki du. Ahalegin horiek, ordea, ez ziren eraginkorrak izan haurrak bikote abegigilearen gatazkatik babesteko.

Haurrak pairatzen ari ziren kalte larria egiaztatutakoan eta hartutako neurriek haiek babesteko helburuan porrot egiten zutelatik ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen kexaren egilearekin familia-abegia etetea beharrezko neurria zela haien ongizatea bermatzeko.

Harrezkero umeen zaintza beste abegi-familia birekin egiten da eta haien bilakaera, esan dugunez, egokia da.

4. Banantzearen ondorengo lehen uneetan ez zen beharrezkoa izan abegigileen eta umeen arteko topaketak erregulatzea, bikotearen komunikazio eta adostasun maila egokia zelako. Hilabeteak igaro ahala, ordea, nahastutako guztiek jo zuten beharrezkotzat topaketa haiek erregulatzea. Hala, haurren foru zerbitzuak, abegigile biek bikotea banandu arren familia-abegiarekin agertutako konpromisoa eta haurrekin biek duten lotura kontuan hartuta, haurrak emakume abegigilearekin bizitzea ezarri eta gizon abegigilearekiko kontaktuak arautzen dituen ebazpen bat hartu du.





Foru Aldundiak erregulazio horren bidez lortu nahi duen helburua honakoa da: *“bien arteko gatazka egoera murrizte aldera eta hala egungo sistema familiarra berregituratu ahal izatea haurrei ahalbidetzeko aurreikusi eta aurrez jakin ahal izatea bietako zeinekin egongo diren.”*

Komunikazio araubidea ezarri aurretik, haurren foru zerbitzuak banakako bilera izan ditu abegigileekin eta, txostenetan ikusi dugunez, haietan argi geratu zen emakume abegigilea ez zegoela ados gizon abegigilea egunero 20:00etatik 21:00etara beraren etxera joatearekin haurrak oheratzeko, une hartan egiten ari zenez. Bestalde, honakoa ere geratu zen argi: *“ez liokeela uko egin nahiko haurrak egunero lotarako orduan ikusteari, berarentzat une hori oso garrantzitsua delako.”*

Hala ere, Foru Aldundiak 2013ko abenduan onartu zuen ebazpenak, gizon abegigilearen eta haurren arteko kontaktuak ezarriz, ez zuen zehaztasunez erabaki noiz gertatu behar ziren (*“ikastetxetik irteten direnetik lotarako ordura arte”*) horiek, eta tarte zabala utzi zuen bere interpretaziorako.

Erakunde honen iritziz, larriagoa da erreklamaziogileak ebazpenaren baldintzak argitzeko egindako berariazko eskabide baten aurrean, gizon abegigilea bere ezkontegoitza izan zenean sartzeko eta han bestearen gogoaren kontra umean oheratzeko ordura arte geratzeko askatasunez senti ez zedin, Foru Aldundiak jaramonik ez egitea eta abegia eten arte komunikazio araubide berari eustea. Erreklamaziogileak une haietan sortzen zen gatazka mailaren berri eman zuen baina, hala ere, ez zen aldatu eta gizon abegigilearekin ez zen argitu foru aginduaren zentzua.

Egoera hori urte batez luzatu zen ia, bikotean tentsioa eta gatazkak areagotuz, umeak haien lekuko zuzenak izanik.

Bikotearen gatazka eta desadostasunak beste edozein unetan eta tokitan gerta bazitekeen ere, Foru Aldundiak, komunikazio araubide hori ezarri eta ez aldatzean, ez zuen lagundu tentsioa urritzen eta, beraz, ez zituen umeak babestu lekuko ziren gatazka horietatik.

5. Ondo baloratzen dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak abegi-familietan edo orokorrean haren esku-hartzei lotutako familietan geroago gertatutako banantze edo dibortzio egoeretan kontuan hartzeko elementurik garrantzitsuenak jasoko dituen prozedura bat idazteko hartu duen erabakia. Prozedura 2015eko bigarren sehiren dago aurreikusita.

Haurren foru zerbitzuari, prozedura hori idazteari begira, bista, egonaldi eta haurrekiko harreman edo komunikazio araubideak xehetasunez ezarri beharra kontuan har dezala iradoki diogu.





Gurasoen banantze edo dibortzio kasuetan gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak nolakoak izango diren ezartzen duten hitzarmen arautzaileak kontuan hartzeko erreferentzia ona dira.

6. Erreklamaziogileak Trebatu familia esku-hartze programan izandako parte-hartzeari dagokionez, igorri zaizkigun txostenen bidez, jakin ahal izan dugu 2014ko uztailean argi zeukala programa hura aktibatu beharra, esku-hartzeko balorazioaren xedearekin.

Hala, honako hau irakur dezakegu: *“nahiz eta (...) andreak (...) eta (...)entzat baliabide psikomotrizista bat aktibatzea baino ez duen nahi, jarraipenetik uste dugu esku-hartzea etxean bertan egin beharrekoa dela, eta ez soilik adin txikikoekin bakarka (...). Hala, jarraipenaz arduratzen diren profesionalek uste dute baliabide psikomotrizista horrekin batera, Trebatu programa aktibatzea ere funtsezkoa dela jarraian adierazitako helburuak lantzeko:*

- (...) eta (...) egoera pertsonalaren balorazio exhaustibo eta integrala egitea.
- (...) andreak haurren beharrianak betetzea bere gain hartzeko daukan guraso-gaitasun maila baloratzea,
- Haurren eta (...) jaunaren arteko kontaktuen kalitatea baloratzea.”

Igorritako txostenen arabera, bilera batean helburu horiek azaldu zitzaizkion eta, hasiera batean emakume abegigilea esplizituki haien aurka agertu arren, geroago parte hartzea onartu zuen eta aldi berean programari buruzko argibide gehiago eskatu zuen.

Egiantan, askotan eskatu arren, berak programan parte hartzearekin lortu nahi ziren helburuak ez zitzaizkion idatziz eman.

Eman zitzaion idazki bakarra –Foru Aldundiak haren kopia eman digu bere erantzunean-, berak programan parte hartzeko sinatu zuen hitzarmena da. Parte-hartzaileak bere gain hartzen dituen konpromisoak (ordutegiak betetzea, jarraibideak betetzea, informazioa ematea, etab.) eta Trebatu programak kudeatzen duen erakundeak hartutakoak (familiarekin informazioa partekatzea eta biltzea, kexak kudeatzea, etab.) ezarri zituen hitzarmen horrek. Hala ere, ez zen ezer adierazi erreklamaziogileak parte hartu behar zuen programaren ezaugarri zehatzei (esku-hartzeko balorazioa) ez haren helburuei buruz: haurren egoeraren eta emakume abegigilearen guraso-gaitasunaren osoko balorazioa egitea.

Alegia, hitzarmenak ez du jaso, jakinarazi digutenez, ahoz eman zitzaion informaziotik ezer.

Erreklamaziogilearen kexetako bat da familia esku-hartze programak parte hartzea proposatu ziotenean berak laguntza eraginkorra espero zuela, baina





esku-hartzeak iraun zituen hiru hilabeteek, ordea, *"gehiago eman dute laguntza etetea zuritzeko ebaluazio bat"*.

Erakunde honen iritziz, programan parte hartuko duen pertsonari, bilera baten bidez, bere parte-hartzearekin lortu nahi diren helburuak xehetasunez azaltzea jardunbide oso egokia da, zalantzak argitzea, beldurrak agertzea, etab. Ahalbidetzen duelako. Hala ere, gure ustez lortu nahi diren xedea eta helburuak idatziz jaso behar dira parte-hartzaileek sinatzen duten hitzarmenean. Ez da nahikoa sinatzen den parte-hartze hitzarmenak, orokorrean, programan parte hartzen dutenen eskubideak eta betebeharrak jasotzea.

Gure ustez, horrek ez luke oso zaila izan behar; izan ere, bai helburuak, bai programa garatzeko denbora eta baliabideak haurren zerbitzuan arreta jasotzen duen haur bakoitzaren kasuko planean jasota egon ohi dira eta, beraz, idatziz jaso besterik ez litzateke behar programan parte hartzen duen familiak ezagut ditzan. Hori bereziki garrantzitsua da familiaren guraso-gaitasuna baloratu nahi denean, abegiak aurrera jarritzea ala nahastutako adingabea babesteko neurriren bat hartzea erabakitzeko.

Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

IRADOKIZUNA

- Familia-abegi programan parte hartzen duten bikoteen bizikidetza hausten den kasuetan bisita, egonaldi eta abegi emandako adingabeekiko harreman edo komunikazio araubidea xehetasunez ezar dezala, beharrezkoa balitz, ordutegiak, esparru fisikoak edota beste edozein inguruabar argigarri adieraziz.
- Egiten duen ahozko aurkezpenarekin batera, familiek Trebatu familia esku-hartze programan sinatu behar duten parte-hartze hitzarmenean, eta beharrezkoa den heinean gainerako familia esku-hartze programetan, familia horrek programan parte hartuz lortu nahi diren helburu nagusiak sar ditzala.

